

FUNTSEZKO JARDUERAK

Garrantzitsuena gure aplikazioa ona eta eguneratuta izatea da, bezeroak beraien interesa mantendu eta gurekin leial izan daitezen. Jarduera guzti hauekin, aplikazioaren arrakasta bermatu nahi dugu:

Aplikazioaren funtsezko jarduera nagusi guztiak guk eta informatiko batek garatuko ditu. Aplikazioaren formatu zein diseinu aldaketei dagokionez, informatikoak egingo ditu, beti ere gure ideiak eta xeheki bezeroen ideiak errespetatuz. Aplikazioan aldaketak behar badira, hilean bitan egingo dira (app-a egoki funtzionatzen badu, bestela gehiagotan aldatuko dugu).

Beste aldetik, sare sozialen bidez, hainbat gauza desberdinak igoko ditugu: nutrizioare buruzko datu zein informazioa, dietetikari buruzko berri berriak, gaixotasuak duten pertsonentzako gomendio berritzaileak (adb: zeliakoentzako errezetak), begano zein begetariano munduan dauden pertsonentzako gomendioak (nondik hartu dezakete bitamina gehiago, zeintzuk barazki edo frutak osasungarrienak dira etb) eta pertsona haragijale batek begano edota begetarianoen mundura sartzeko pausoak edo nola egin dezaketen azalduko diegu.

Azkenik, gure aplikazioaren mamia osasuna hobetzea denez, astero bezero bakoitzari beren dietetika- ebaluazioa emango diegu. Ebaluazio horretan, asten zehar egindako menuaren, jarduera fisikoaren eta osasun parametroen batzbestekoa eskainiko dizkiegu.

